

Inklusioa, edo nork-nor



IRATI ELORRIETA
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Askoren ahotan dabilen gaia da inklusioarena. Bai hezkuntzan bai gizartean halakorik gauzatzetik urruti gauden neurrian, elkarrekin bizitzeko modu hobe baten utopia da oraingoz. Errealitatean inklusioarantzako pausoak ematea prozesu geldoa denez, beharbada literaturak egin lezake prozesu azkarrago bat. Alegia, kamera azkarrean simulatu lezake prozesua. Literatura izan daiteke utopia hori irudikatzeko, marrazten hasteko, aurreratzeko toki bat? Bada dagoeneko?

Zeregin horretan haur eta gazte literatura non eta nola dabilen jakiteko asmoz hurbildu nintzen ekitaldi batera. Segundo gutxitan ingurua aztertu zuen barruko kamerak: ehun bat pertsona. Denera, hiru gizon. Hiruak lehen lerroan eserita. Haietako bat gurpildun aulkian.

Mahai-ingurua hastera zihoala, gizonetako bat parte-hartzailea zela geratu zen agerian. Han entzun nituenak ez zitzaizkidan berriak egin. Oso gauza orokorrak esan ziren. Tartean, asmo onez argitaratutako guztiak ez duela helburua betetzen. Izan ere, kontua ez da politikoki zuzena den irakasgaia petatxu edo apaindura gisa liburutetara eramatea, haur beltza edo elbarria album ilustratu baten irudietan jarritz (txertatuz).

Irakurtzeko ohitura duenak badakien zerbait da: pertsonaia baten ezaugarri nagusi (edo bakarra!) bere gurpildun aulkia edo buruan daraman zapia bada, pertsonaia laua izango da ezinbestean. Pertsonaia horren ezaugarri horixe (dela elbarria, beltza, pobrea, ama edo aita gabea, transexuala, atzerritarra: x) bere identitatearen baitan duen irakurleak ez du pozik hartuko. Irakurleok (adinak eta beste guztiak ere berdin dio) ezin dugu pertsonaia lauekin identifikatu. Literaturaren egiteko bat gure eta besteen *barne-bizitzetarako* leihoak zabaltzen saiatzea da. Kontakizunak, azalean geratzen bada, ez du zirrararik eragiten, eta beraz, ezin du benetako ulertze-momenturik sortu. Baina, noski, inklusioa, gizartean bezala, aniztasunaren eskutik soilik etor daiteke literaturara ere. Aniztasuna bai pertsonaia motetan, bai istorioetan, bai estetikan.

Bukaerako galderen txandan, gurpildun aulkian zegoen gizona ere parte-hartzaileetako baten proiektuko kidea zela geratu zen agerian. Parentesia zabalduko dut goian esandakoaren harira: arin batean gurpildun aulkia dabilen gizonezko bezala deskribatu (etiketatu) dudanak bere web-orrian

dio: "Berlindarra. Idazlea. Aurkezlea. Komunikabide-egilea. Enbaxadorea. Inklusio-aktibista". Zerrenda osatuago horrek ere bere identitatearen arlo batzuk baino ez ditu aipatzen, bere burua publikoki aurkezteko aukeratu dituenak. Fikziozko istorio baten pertsonaia (konplexu) bihurtzeko asko faltako litzateke oraindik! Hirugarren gizona, ia bukaeran, gorra zela geratu zen agerian. Itzultzaileek bere galderak itzuli zituztenean.

Ekitaldi horretara joatetik atera nuen ondoriorik argiena da gizon bakar bat ere ez zela entzutera joan, zuzenean gaiarekin inplikaturik egon gabe. Arauaren zentroaren zentroan dagoena, arin esanda, klase ertaineko gizon zuri, heterosexualek, elbarri gabea bada, zentroaren zentroan daudenetako bakar bat ere inklusioari buruzko ekitaldira hurbildu ez izana bada esanguratsua. Ala ez?

Irudia muturrera eramanez, bazterrak indarra hartuz gero, inkluitzeko geratuko liratekeen azkenak izango dira beren burua normalizat jotzen duten horiek. Bazterretako batean dagoenak ere normaltasuna aldarrikatzen du, baina denok normalak ez garen bitartean, ez da inor normala. ●